




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

2011

PROBAK EGITEKO JARRAIBIDEAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.maila

Ikasleentzako materiala



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Hurrengo egunotan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan eskolaturik zaudeten ikasle guztiok proba batzuk egin beharko dituzue (**Euskara, Gaztelania, Matematika eta Ingelesa**). Proba multzoari **EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA** deitzen zaio eta Euskadiko irakaskuntza hobetzeko eta zuei ikasten laguntzeko oso baliagarria izango da.

Proba bakoitzak bi tresna ditu:

GALDERA KOADERNOA

Koaderno horretan era eta zailtasun maila ezberdinetako galderak aurkituko dituzu. Koadernoan ez da ezer idatzi behar, irakurtzeko bakarrik da.

ERANTZUN ORRIAK

Orri horietan koadernoan egiten diren galderei erantzun behar diezu.

2. PROBETAN AURKITUKO DITUZUN GALDERA MOTAK

Probetan **HIRU galdera mota** aurkituko dituzu:

➔ LEHENENGO GALDERA MOTA:

Lau erantzun posible aurkezten dira eta zure ustez zuzena den bakarra aukeratu beharko duzu. Erantzuteko, egokia den hizkian **X** bat ipini behar duzu. Begiratu ondoko adibide hau:

01

Asteak zenbat egun dauka?

- A. 2 egun.
- B. 4 egun.
- C. 7 egun.
- D. 10 egun.

A

B

C

D

Galdera bat erantzun ondoren okertu zarela uste baduzu, **EZABATU** zure lehenengo erantzuna eta **X** batez markatu zure ustez egokia dena.

➔ **BIGARREN GALDERA MOTA:**

Zenbait galderatan taula bat aurkituko duzu eta bi aukeraren artean bat hautatu beharko duzu. Begiratu ondoko adibide hau:

02 Jarraian astearen egunei buruzko baieztapen batzuk dituzu. Markatu X batekin EGIAZKOAK ala GEZURREKOAK diren. Begiratu adibidea:

	EGIAZKOAK	GEZURREZKOAK
1. Egunek 24 ordu dituzte.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Astelehena astearen hirugarren eguna da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Asteartearen ondoren igandea doa.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Lehen ikusi dugun bezala, galdera bati erantzun ondoren okertu zarela uste baduzu, zure lehenengo erantzuna **EZABATU** eta **X** batez markatu zure ustez egokia dena.

➔ **HIRUGARREN GALDERA MOTA:**

Galdera gutxi batzuk irekiak dira. Horrek esan nahi du erantzuna zeuk **IDATZI** beharko duzula. Hori egiteko tarte zuria aurkituko duzu. Begiratu ondoko adibideak.

03 2. mailako 24 ikaslek zenbait galderari erantzun diete gehien gustatzen zaien asteko egunari buruz. Hauek izan dira erantzunak:

- Erdiek igandea aukeratu dute.
- 7k larunbata aukeratu dute.
- Gainerakoek asteazkena aukeratu dute.

Zenbat ikaslek aukeratu dute asteazkena?

.....

04 Idatzi hiru arrazoi justifikatzeko zergatik jaiegunak gustatzen zaizkizun gehien:

1	
2	
3	



05

lazko udan 13 aste opor izan genituen, baina aurten 11 aste izango ditugu. Adierazi bi uden artean zenbat opor egun izango diren.

Ebatzi problema, egin dituzun eragiketak eta emaitza bertan adieraziz.

Eragiketak:

Emaitza: _____



06

Beste batzuetan, **IDAZLAN BAT** idatzi beharko duzu; halakoetan gutxienez zenbat hitz idatzi behar duzun esango dizugu. Aurreko adibideetan bezala, zerbait idatzi behar duzunean ondoko irudia aurkituko duzu:



.....

.....

.....

.....

.....

3. KONTUAN IZAN BEHAR DITUZUN ZENBAIT ALDERDI

- Galdera itxiak zein irekiak (testu laburrak eta idazlanak) erantzuteko **boligrafoa eta tipexa** erabili beharko dituzu.
- Matematika proban kalkulagailua erabil dezakezu, baina ez da beharrezkoa.
- Oso garrantzitsua da galdera bakoitza osorik eta arretaz irakurtzea; gainera, ondo pentsatu behar duzu erantzuna idatzi baino lehen.
- Saia zaitetz ahalik eta galdera gehien erantzuten.
- Galdera baten erantzuna zein den ez badakizu, utzi erantzun gabe eta joan zaitetz hurrengora. Bukatzen duzunean, astirik baldin badaukazu, erantzun gabe utzi dituzun galderetara itzul zaitezke.



OSO GARRANTZITSUA: ERANTZUN GUZTIAK PROBA EZBERDINETAN EMANGO ZAIZKIZUN ERANTZUN ORRIETAN IDATZI BEHAR DITUZU.

EZ IDATZI EZER GALDERA KOADERNOETAN.